



EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA

DBHko 2.a

2013-14 ikasturtea

Jarduketan protokoloa

AURKIBIDEA

- A. 2013-14 ikasturteko berritasunak
- B. Galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala online aplikatzea
- C. Probak entregatzea eta zaintzea
- D. Ikasleak salbuesteko irizpideak
- E. Proba hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei egokitzea
- F. Curriculum Egokituko Programa (CEP) egiten duten ikasleak
- G. Probak betetzea
- H. Aplikazio fasea prestatzea
- I. Aplikazioa
- J. Proba egunean bertaratu ez diren ikasleak
- K. Ingeles probarako berariazko jarraibideak
- L. Probak aplikatzeko egutegia
- M. Proben zuzenketa
- N. Datuak sartzea
- O. Txostenak eskuratzea
 - Ikaslearen txostena
 - Ikastetxearen txostena
 - Datuen fitxategia (CSV formatuan)
- P. Ikasleek egindako probak gordetzea
- Q. Esker ona
 - 1. eranskina: Salbuetsitakoen erregistroa
 - 2. eranskina: Egokitzapenen erregistroa
 - 3. eranskina: Egutegia

Dokumentu honetan jarraibideak ezarri dira, probak Nafarroako ikastetxe guztietan kontrolpean eta modu berean aplikatzen, zuzentzen eta erregistratzen direla bermatzeko.

Ebaluazio honen aplikazio, zuzentze, grabatze eta informatze lanean zuzenki inplikaturik dauden zuzendaritzako kide eta irakasleek behar besteko aurrerapenez ezagutu beharko dituzte jarraibide hauek, eta praktikara eraman.

A. Berritasunak

Ikastetxeek ekarritakoaren eta Ebaluazio Atalaren balorazioen arabera, 2013-14 ikasturtean azpimarratzeko modukoak diren berritasunak ondoko hauek dira:

- * Proba hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei egokitzea (E atala).

B. Galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala online aplikatzeko protokoloa

Online aplikazioak isilpekotasuna bermatzen du eta, orobat, ebaluazio diagnostikoaren txostenean, ikastetxeek indize sozioekonomiko eta kulturala izaten segituko dute, indize horren arabera gaitasun bakoitzerako balioetsitako puntuazioekin eta grafikoak gaitasun bakoitzerako Errendimendua-ISEK erregresio-zuzenarekin eta hartan ikastetxea non dagoen adieraziz.

Galdera-sorta hobeki aplikatzeko, ikastetxeek jarraibide hauek beteko dituzte:

1. DBHko 2. maila ikasten ari diren ikasle guztiek bete behar dute galdera-sorta, betetzerik ez dutenak izan ezik, ebaluazio diagnostikoko probetan ezarritako irizpide berberak aplikatuz.
2. Galdera-sorta helbide honetan eskuragarri izanen da:
<http://dpto.educacion.navarra.es/eed/>
3. Ikasle bakoitza galdera-sortan sartuko da erabiltzaile izen batekin eta pasahitz batekin; biak isilpekoak izanen dira.
4. Ikastetxeetako zuzendariak erabiltzaile izenen eta pasahitzen zerrenda (matrikulaturiko ikasleak bezainbeste) **Educa (Educa/Kudeaketa Akademikoa/Ebaluazio diagnostikoa)** bidez jasoko dute. Zerrenda horretan ez da ikasleak identifikatzeko moduko daturik agertuko.

Aplikazioa egin behar denean, ikastetxeko zuzendariak DBHko 2. mailako tutore bakoitzari erabiltzaile izenak eta pasahitzak (ikasleak bezainbeste) emanen dizkie eta bere ikasleen artean ausaz banatuko ditu.

5. Aplikazioa egin aurretik, tutoreek eta ikasleek askatasunez praktikatzen ahalko dute. Horretarako, probako **erabiltzaile izen** eta **pasahitz** hauekin sartuko dira aplikazioan:

Erabiltzaile izena: Irati
Pasahitza: Irati

Noiznahi eta nornahi sar daiteke *probako erabiltzaile* modura. Horrek aukera ematen die tutoreei eta ikasleei galdera-sorta aztertzeko eta datuak betetzeko aplikazioan gorde gabe. *Bidali* botoian *klik* eginda ere ez dira gordeko.

Ikastetxeak berak erabakiko du nola bete behar den galdera-sorta. Nolanahi ere, komenigarritzat jotzen da tutoreak prestakuntza jarduerak planifikatzea ikasleek galdera-sorta eta betetzeko jarraibideak ezagutzeko eta bete behar duten unean galderari segurtasunez erantzuteko.

6. Aplikazio saioa. Tutoreak antolatuko du saio hau eta ikastetxeko ordenagailuak erabiliko ditu horretarako. Ikasleak aplikazioan sartuko dira, tutoreak ikasle bakoitzari ausaz emanen dizkio erabiltzaile izena eta pasahitza, ikasleek aplikazioan sartuko dituzte eta galdera-sorta beteko dute.

Erraz betetzen da. Nolanahi ere, alderdi hauek kontuan hartu behar dira:

- Galdera bakoitzean, ikasleak aukeren arteko erantzun bat hautatuko du. Ikasleak erantzuna noiznahi alda dezake.
- Galdera-sortan gora eta behera egin daiteke.
- Galdera-sorta bukatzeko eta erantzunak gordetzeko, *klik* egin behar da ***Bidali*** botoian. Hau egitea nahitaezkoa da erantzunak gordetzeko.
- Ikasleak galderak erantzun gabe utzi baditu, ***Bidali*** botoian *klik* egiten duenean aplikazioak zer egin duen ohartaraziko du eta ikasleak galdera-sorta betetzen segitzeko aukera izanen du edo bukatutzat emanen du ***Dagoen bezala bidali*** botoian *klik* eginez.

Badira galderak erantzunik gabe.
Amaitzeko sakatu ***Dagoen bezala bidali*** botoia, edo, bestela, osatu galde-sorta eta sakatu ***Bidali*** botoia

Dagoen bezala bidali.

- ***Bidali*** botoian *klik* egin eta galdera-sorta bukatu ondoren, ezin izanen da berriz sartu galdera-sortan erabilitako erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin.
7. Epeak: galdera-sorta **otsailaren 1etik apirilaren 16ra** bitartean beteko da.
 8. Oharrak eta zalantzak. Izan daitezkeen zalantzak Ebaluazio Atalean argituko dira, mezuak (evaleduc@navarra.es) posta elektronikora bidaliz edo 848426554 telefonora deituz.

Galdera-sorta ongi betetzen bada, ikastetxeek datu fidagarriagoak izanen dituzte eta beren ikasleen hezkuntzari buruzko alderdi garrantzitsuak hobeki ezagutuko dituzte.

C. Probak entregatzea eta zaintzea

1. Aurreko ikasturteetako prozedura erabiliko da:

- a) Lizarra, Lekaroz, Tafalla eta Tuterako ILZetara atxikiriko ikastetxeek probak haiei dagokien ILZren egoitzan jasoko dituzte, **2014ko apirilaren 14, 15 eta 16an**.
- b) ILZ horietara atxikiriko ikastetxeren batek Iruñean jaso nahiko balitu, **posta elektronikoz** jakinarazi beharko dio **Ebaluazio Atalari, martxoaren 21a baino lehen** (evaleduc@navarra.es).
- c) **Iruñeko ILZri** atxikiriko ikastetxeek probak Hezkuntza Departamentuan jasoko dituzte, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuan (tarteko solairua), **2014ko apirilaren 14, 15 eta 16an**, 08:30etik 14:30era.

2. Behin ikastetxean daudela, egiaztatuko da koaderno kopurua egokia dela eta giltzapean sartuko dira, isilpekotasuna bermatuz.
3. Zuzendariek aplikatzaileei proba bakoitzean beharko diren koadernoaren kopuru zehatza emanen diete, **gehienez ere proba hasi baino ordubete lehenago**.

Koadernoak paketatuta egonen dira, eta proba hasteko unean irekiko dira.

4. Aplikatzaile eta zuzentzaileek erabat isilpean gordeko dute proben edukia, maiatzaren 18ra arte. Egun horretatik aitzina probak aske eta irakasleendako eskuragarri geldituko dira.

D. Ikasleak salbuesteko irizpideak

DBHko 2. kurtsoan dauden ikasle guztiek egin beharko dituzte proba hauek. Salbuespena izanen dira ondoko irizpideren batengatik proba egin ezin dezaketenak:

- a) Hezkuntza sisteman sartu berriak izanik (duela ikasturte bat baino gutxiago), gaztelania (edo, kasuan kasu, euskara) ez ezagutzea.
- b) Mugitzeko edo zentzumenezko desgaitasuna, proba egitea galarazten duena (esate baterako, igeltsatutako besoa, ikusmen urria...).
- c) Desgaitasun psikikoa edo intelektuala, Educa kudeaketa programan erregistratua, eta irakasgai gehienetan ziklo bateko edo bi kurtso baino gehiagoko curriculum desfasea eta/edo proba egiteko autonomia gabezia. Erregistratua edo erroldatua egotea ez da aski arrazoi salbuespena izateko. Adibidez, arreta gabeziako nahaste eta hiperaktibotasunarekin (TDA-H) erregistratutako ikasle askok egin dezakete proba eta ez dira salbuetsi moduan agertuko. Horretaz gainera, curriculum desfasea kontuan hartuko da, baita ikasleak proba egiteko nahiko autonomia duen ere, harengandik espero den errendimendua apala bada ere.

Ikasleak aipatutako irizpideetako baten bat betetzen badu, Salbuetsitakoaren Erregistroan eta EDUCA aplikazioan halakotzat agertuko da. Hala bada, haren emaitzak ez dira ikastetxeko txostenean kontuan izanen. Hori hala izanik ere, salbuetsi moduan agertzen diren ikasleek

proba egin dezakete, haien emaitzak EDUCA aplikazioan sartu ahal izanen dira eta ikaslearen txostena ere lortzerik izanen da.

Oro har, proba egiten duten ikasle salbuetsiek tutorearen, orientatzailearen edo Pedagogia Terapeutikoko irakasleen laguntzarekin eta haien gidaritzapean eginen dute.

Ikastetxeek aurretik beteko dute **Salbuetsitakoan erregistroa** (l. eranskina) eta behar den garaiari informazioa emanen diete proben aplikatzaileei. Erregistroa ikastetxean gordeko da (**ez da Ikuskapen Zerbitzura igorri behar**).

E. Proba hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei egokitzea

Ikastetxeak (zuzendaria, orientatzailea, tutorea) proba egiteko desgai bihurtzen ez dituzten hezkuntza premiak dituzten ikasleendako egokitzapenak eta laguntzak aurrez ikusi eta eskura jarriko ditu.

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, egin beharreko egokitzapenak orientatzaileak eginiko **txosten psikopedagogikoan** oinarrituko dira eta ikastetxeak ikasle horiek ebaluatzeko egiten zituen egokitzapenak erabiliko dira.

Ikastetxeetako **zuzendaritza taldeek** beharrezkoak diren egokitzapenak kontuan izanen dituzte eta erabili beharreko gune eta denborak egoki **antolatuko** dituzte. Galdera-sorta betetzeko denbora handitzen bada, egokitzapenak dituzten ikasleek proba egiten segitzen ahalko dute, gainerako ikasleek proba bukatu ondoren.

Oro har, egokitzapena behar duten ikasleek proba egiten dute aurrez aurre gaitasuna ebaluatzeko izendatutako aplikatzailea dutela eta haren gidaritzapean betiere.

Egokitzapenak hezkuntza premia berezien arabekoak izanen dira, individualizatuak eta berariazkoak, eta funtsean metodologikoak izanen dira eta ebaluazio prozedurekin zerikusia dutenak eta, orobat, haietan ez da proben eta testuen edukiari edo galderei buruzko **oharrik, ñabardurarik** eta **interpretaziorik** eginen. Besteak beste, neurriak hauetakoak izan daitezke:

- Denbora gehitzea. Oro har proba egiteko ezarritako denbora bukatu ondoren, egokitzapena behar duten ikasleek proba egiten segitzen ahalko dute, ezarritako egokitzapenaren arabera.
- Kokapen egokia ikasgelan.
- Ikasleak proba egiteko jarraibide orokorrak ulertu dituela egiaztatzea eta, kasua bada, ariketa edo ataza zehatz baten berariazko jarraibideak.
- Letra tamaina handitzea.
- Proba ahoz egitea, osorik edo zati batean.
- Ikaslea proba arreta edo denbora gehiegi galdu gabe egiten ari dela egiaztatzea modu individualizatuan.
- Ahalegina sendotzea eta estimulatzea, ikaslea lagunduz ariketarekin segitzera edo proba egitera eta, orobat, ariketa eman baino lehenago galdera guztiak erantzun dituela gainbegiratzuz.
- Eta abar.

Ikastetxeek aurretik **Egokitzapenen Erregistroa** beteko dute (II. eranskina) eta ikastetxean gordeko da (ez da Ikuskapen Zerbitzura igorri behar). Zuzendaritza Taldeak eta/edo orientatzaileak, hala dagokionean, proben aplikatzaileei xeheki adieraziko die zer egokitzapen egin behar duten eta, hala behar denean, baita zuzentzaileei ere. Proben egokitzapenak ez du ondoriorik datuak EDUCA aplikazioan sartzean edo erregistratzean. Ohiko moduan sartuko dira, baita egokitzapena izan duten ikasleek proba egiteko denbora gehiago erabili badute ere.

Irizpide hauek aplikatzen badira, bermatuko da proba estandarizatu hauetan beren seme-alaben emaitzak ezagutzeko familien eskubidea eta, orobat, ezaugarri pertsonalak kontuan hartzea eta emaitzak modu kontestualizatu batean baloratzea.

F. Curriculum Egokituko Programa (CEP) egiten duten ikasleak

CEPeko ikasleak **salbuetsi** modura agertuko dira Salbuetsitakoan Erregistroan eta EDUCA aplikazioan, eta haien emaitzak ez dira ikastetxeko txostenean kontuan hartuko.

Hori hala izanik ere, **ikasle horiek probak egin beharko dituzte (ingeles gaitasunekoia izan ezik)**, ez bada oro har ezarritako salbuespen irizpideak ezarritik ezinezkoa dutela.

Barneko CEPeko ikasleei dagokienez, jardunbide orokorra erabiliko da: ikasleen erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta ikaslearen txostena aterako da.

Kanpoko CEPeko ikasleei dagokienez, ikasleek probak ohiko ikasgeletan egiten dituzte, koadernoak eskuz zuzenduko dira, datuak ez dira Educa aplikazioan sartuko eta txostenak eskuz idatziko dira. Horretarako, ikasle hauek hartzen dituzten ikastetxeek materiala Hezkuntza Departamentuko webgunetik hartuko dute eta edozein laguntza edo argibidetarako Ebaluazio Atalarekin jarriko dira harremanetan.

G. Probak betetzea

- Probak arkatza edo bolaluma erabiliz beteko dira, ikastetxe bakoitzak erabakitakoaren arabera.
- **Ikasleek kalkulaqailua erabiltzen ahalko dute** probetan.
- Zirriborro papera:
 - Matematikako gaitasun proban ikasleek orri zuriak erabiltzen ahal dituzte eragiketarako, baina oharrak ebaluazio koadernora pasatu beharko dituzte, galderak irekiak direnean eta urratsak edo planteamenduak eskatzen direnean.
 - Era berean, ingeleseko proban ikasleek zirriborro papera erabili ahal izanen dute probaren lehen zatian oharrak hartzeko (Listening edo entzumena).
 - Ez da zirriborroaren papera jasoko.

H. Aplikazio fasea prestatzea

- Zuzendariak Protokolo hau aplikatzaileen esku utziko dute, aplikatzen hasi baino 72 ordu lehenago, gutxienez. Nolanahi ere, gomendatzen da protokoloa eta ebaluazio prozesu osoaren plangintza taldean aztertzea.
- Ingeles proba egin behar denean bereziki hartu behar da kontuan audio-erreproduzitzailea erabili behar dela eta horretarako berariazko jarraibideak daudela.
- Tutoreek ordua bete aurretik proba bukatu eta ikasgelan segitzen duten ikasleentzat lana prestatuko dute, lanean jarrai dezaten ikaskideak molestatu gabe.
- Ikastetxeek egokitzat dituzten informazio eta motibazio neurriak hartuko dituzte, normala edo ohikoa den lan giroa sortzeko.

I. Aplikazioa

1. Probak ikastaldeari eskola ematen dioten irakasleek aplikatuko dituzte, **baina ez une horretan ebaluatzen ari den gaitasunarekin zuzenean lotutako irakasleek**. Horren ondorioz, ingeles gaitasuna neurtzeko proba ez du ingeleseko espezialistak aplikatuko.
2. Aurreko puntua betetzerik ez dagoenean, ebaluatoriko ikastaldeari eskolarik ematen ez dion irakasle batek aplika dezake proba.

3. Aplikazioan zehar, aplikatzaileak konpromisoa hartuko du protokolo honetan dauden jarraibideak fideltasunez jarraitzeko eta ez du proben edukiari, testuei edo galderei buruzko **argibiderik, ñabardurarik** eta **interpretaziorik** egingen. Aplikatzailearen eginkizuna da errespetuzko eta bakarkako lan giroa bermatzea eta ikasleei esanien diena ondoko mezu hauen antzekoa izanen da: *adi irakurri; segi lanean; galdera ez baduzu ulertu segi lanean eta saiatu geroago; baduzu denbora errepasatzeko...*

Bere lana egoki betetzeko, aplikatzailea ikasgelan gertatzen denaz, ikasleez eta probaren garapenez arduratuko da, eta ikasleek arretaz lan egin dezaten eta eman zaien denbora ahalik eta gehien aprobetxa dezaten ahaleginduko da.

4. Aplikatzaileak ikasleei esanien die proba hau egitea oso garrantzitsua dela, Nafarroako ikasle guztiak ari direla proba egiten, ahal bezain ongien egiten saiatu behar dutela, tutoreak ekainean emanen dizkiela emaitzak gurasoei, etab. Sentsibilizazio lan hori oso garrantzitsua da ikasleen inplikazioa eta ahalegina sustatzeko, eta ikastetxean aurrez ikusitako lan planaren arabera egin daiteke.
5. Aplikatzaileak ikasleei jakinaraziko die ikasgelan egon behar direla proba bukatu arte. Lehenago bukatzen badute, tutoreak proposaturiko lanak egin beharko dituzte, ikaskideen lana eten gabe. Aplikatzailea ikasleek egin beharreko lanaren jakitun izanen da, eta lan hori egiten dela bermatuko du.

6. Aplikatzaileak zerrenda bat izanen du taldeko kide guztiekin, baita salbuetsita dauden ikasleen erregistroa ere. Zerrenda pasatuko du, bertaratu gabeak azpimarratuko ditu eta salbuetsita dagoen ikasleren batek proba egiten badu S letra (salbuetsia) idatziko du koadernoan, proba bukatzean.
7. Bermatuko du ikasleen mahaien artean behar besteko tartea dagoela, lana banakakoa izan dadin. Hori horrela dela bermatuko du, saio guztian zehar.
8. Behin dena ordenan dagoela, koadernoan paketea ireki eta koadernoak banatuko ditu. Azaleko datuak betetzeko esan ondoren, probaren koadernoan dauden jarraibideak irakurriko ditu, eta esanen die galdera irekiak daudela, eta baita ere itxiak, eta azken horietan erantzun bat hautatu behar dutela (A, B, C edo D). Esanen die galdera irekietan galderaren ondoren gune librean idatzi behar dutela erantzuna, eta matematikako gaitasuneko probako ariketetan behin eta berriz azpimarratuko du problema ebazteko urratsak edo planteamendua idatzi behar dutela, galderaren izenburuan hala eskatzen bada.
9. Ikasleek izan ditzaketen zalantza orokorrak argituko ditu, eta adieraziko die bakarrik egin beharko dutela lan, eta zerbait ulertzen ez badute, eskatuko die berriz ere irakurtzeko edo ondoko galderara pasatzeko. Probaren edozein unetan ikasleek berrikusi ahal izanen dituzte aurreko galderak.
10. Behin zalantza guztiak argitu ondoren, arbelean idatziko ditu probaren hasierako eta bukaerako orduak. Probarako esleituriko denbora 60 minutu da. Hori denbora erreala edo baliagarria da: "Une honetatik aurrera hasiko gara kontatzen probako 60 minutuak."
11. Behin proba hasita, aplikatzaileak ez du inongo argibiderik edo erantzun berririk emanen, eta galderarik egiten badiote, galdera berriz ere irakurtzeko edo ondoko galderara pasatzeko gomendioa egingen die.
12. Bukatzeko 10 minutu falta direnean horren berri emanen du.
13. Denbora bukatzean, aplikatzaileak koaderno guztiak jasoko ditu eta ikastetxeko jarraibideei lotuko zaie, bertaratu gabeko ikaslerik izatekotan, haiek proba beste une batean egin dezaten antolatzeko eta, ondoren, probak zuzentzeko.
14. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak proben aplikazioaren kalitate kontrola egingen du, ikastetxeen ausazko lagin batean. Ikuskatzailea aplikazio saioan egonen da eta protokolo hau betetzen dela kontrolatu eta frogatuko du.

J. Proba egunean bertaratu ez diren ikasleak

Ebaluazio hau DBHko 2. kurtsoa eta CEPeko ikasle guztiek egin behar dute, eta beraz, proben egunean bertaratzen ez direnek lehenbailehen egin beharko dute, ikastetxe bakoitzak aurrez ikusitako berreskuratze planaren arabera.


Epeek horretarako aukera ematen badute, erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta, hala egiten ez bada, ikastetxeak aukera dauka probak eskuz zuzendu eta ikaslearen txostena idazteko Hezkuntza Departamentuaren webgunean ikastetxeen eskura jarritako materiala erabiliz, hala nola, erantzun zuzenak, ebaketa-puntuak eta asmatze-ehunekoak.

K. Ingeles gaitasuna neurtzeko probaren berariazko jarraibideak (English Literacy)

Oro har ezarritako jarraibideez gainera, ondoko hauek ere hartuko dira kontuan:

1. Aplikatzaileak, astebete lehenago, egiaztatuko du audio-erreproduzitzailera eta ingeles gaitasuna neurtzeko probako CDa (entzumena) egoki dabilzala eta ikasgela osoan ongi entzuten dela.
2. Aplikatzaileak ikastaldeko kideek ikasteko erabiltzen duten hizkuntzan emanen ditu azalpenak: G/A ereduko ikasleei gaztelaniaz eta D eredukoei euskaraz.
3. Koadernoko azalean eskatutako datuak bete ondoren, probak hiru zati dituela azalduko du:
 - a) LISTENING (entzumena): bi aldiz entzuten da ingelesezko entzunaldi bat, eta jarraian entzundakoaren gaineko galderei erantzuten zaie.
 - b) READING (irakurmena): lau testu irakurriko dituzte ingelesez, eta irakurritakoarekin loturiko galderei erantzuten diete.
 - c) WRITING (idazmena): testu labur bat idatziko dute probako koadernoan emandako jarraibideen arabera.
4. Jarraian, azalduko du LISTENING (entzumena) atala horrela egingen dela:
 - a) 2 minutu izanen dituzte koadernoko *Listening*-eko galderak irakurtzeko, eskatzen zaienaren alde zurreko ideia bat egin dezaten.
 - b) Jarraian, bi aldiz entzuten dute ingelesezko entzunaldi bat.
 - c) Entzunaldien artean 70 segundoko etenak daude. Tarteko etenean galderak erantzuten has daitezke, eta horrela, ondoko entzunaldiari begira, ulertu ez duten horri errepara diezaiokete.
 - d) Entzunaldietan oharrak hartu ahal izanen dituzte, zirriborro orrian.
 - e) Entzunaldia bukatu ondoren, ikasleek dakizkiten galderak osatuko dituzte eta proba egiten segituko dute, norberak bere erritmora.

Ondoko taulan aplikatzaileari esaten zaio zeintzuk diren LISTENING (entzumena) jarduerak eta denborak:



5. Aplikatzaileak galdetuko du ba ote den zalantzarik probaren gainean, hiru atalen gainean, egin behar dutenaren gainean... Zalantza horiek argituko ditu, aurreko urratsak errepikatuz, ikasle guztiendako erabat argi gelditu arte.

6. Zalantzak argiturik, arbelean idatziko du hasierako eta bukaerako denbora, kontuan izanik proba egiteko 60 minutu daudela eta denbora une horretan bertan hasiko dela:

Esanen die lehen 9 galderak 2 minutuan irakurri behar dituztela eta denbora hori pasatu ondoren, audio ekipoa martxan jarriko du.

7. Proba bukatzeko 20 minutu falta direnean, ikasleei denbora hori falta dela gogoraraziko die, eta iradoki, halaber, idazketa ariketarekin hasteko (WRITING).

L. Probak aplikatzeko egutegia

Proba guztiek dute **60 minutuko iraupen erreala**, eta ondoko egutegiaren arabera egingen dira:

Astelehena Maiatzaren 5a	Asteartea Maiatzaren 6a	Asteazkena Maiatzaren 7a	Osteguna Maiatzaren 8a	Ostirala Maiatzaren 9a
	Matematika gaitasuna	Zientzietako gaitasuna	Euskarako hizkuntza gaitasuna (B/D ereduak)	
	Atsedena	Atsedena	Atsedena	
	Hizkuntza gaitasuna gaztelanian	Ingeles gaitasuna		

M. Proben zuzenketa

1. Irakasle zuzentzaileak ondoko hauek dira:

Proba	Zuzentzailea
Hizkuntza gaitasuna	Gaztelania edo Euskara irakasleak
Matematika gaitasuna	Matematika irakasleak
Zientzietako gaitasuna	Zientzietako irakasleak
Ingeles gaitasuna	Ingeles irakasleak

2. Proba bakoitzak zuzenketa koaderno bat du, eta bertan zehazten dira galdera irekiak zuzentzeko irizpideak. Koaderno hauek ikastetxeko zuzendariaren eskura izanen dira probaren egunean, pasahitzarekin, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Atalaren webgunean:

<http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/educacion-secundaria-curso-2013-2014>

Ikaslearen erantzuna zuzenketa irizpideekin alderatu ondoren, zuzentzaileak puntuazioa edo behar den kodea (0, 1, 2...) ikaslearen koadernoan jarriko du.

Galdera itxiak ez dira zuzendu behar. Ikasleen erantzunak Educa aplikazio informatikoan sartuko dira eta puntuazioa automatikoki emanen zaie.

3. **Epeak.** Probak aplikatu ondoren, zuzendu eginen dira. Gomendagarria da aplikazioa egin ondorengo astean egitea; epemuga maiatzaren 16a, ostirala, izanen litzateke.

N. Datuak sartzea

1. Ikasleen koadernoak zuzendu ondoren, (A, B, C, D) galdera itxiei emandako erantzunak eta (0, 1, 2...) galdera irekiei emandako puntuazioak Educa aplikazio informatikoan sartuko dira.

Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuliburu txiki bat dago, Educac datuak sartzeko jarraibideekin. Era berean, izan daitezkeen zalantzak Ebaluazio Atalean argituko dira, mezuak (evaleduc@navarra.es) posta elektronikora bidaliz edo 848426554 telefonora deituz.

2. **Epeak.** Datuak maiatzaren 19tik 23rako astean sartuko dira.

3. Ezinbestekoa da ikasle guztien datuak zuzen erregistratu direla ziurtatzea, datuak sartzeko epea bukatu ondoren ez baita aldaketarik egiten ahalko.

Tutoreak Educan egiazta dezake EDUCAn zer dagoen erregistraturik ikasle bakoitzaren gainean. Era berean, zuzendariek CSV fitxategia ikus dezakete eta egiaztatu datu edo erregistro osagabe edo hutsak dituen ikaslerik baden.

Datuak falta badira edo akatsak badaude, Educa aplikazioak ikaslearen eta ikastetxearen txostenak sortuko ditu gertaera hori kontuan harturik. Dena dela, Educa aplikazioak ez du ezarritako epeetatik kanpora aldaketarik edo zuzenketarik egiten uzten. Hori hala izanik ere, ikastetxeak berak **eskuz** zuzendu edo osatu ditzake txosten horiek horretarako baliaituz aipatutako CSV fitxategiak eta Hezkuntza Departamentuaren webgunean eskuragarri dagoen dokumentazioa. Eskulan hau neketsua izan daiteke. Beraz, komeni da datuak sartzean akatsak edo hutsegiteak saihestea eta zuzendariek erregistratutako datuak gainbegiratzea gorago aipatutako CSV fitxategia erabiliz.

4. Salbuetsita dauden ikasleak aipaturiko erregistroetan identifikaturik geldituko dira, "salbuetsita" zutabearen dagokien laukitxoa markatuta. Salbuetsita dauden ikasleen datuak ez dira kontuan hartuko ikastetxeko txostenean edo ikastetxeko estatistikoen kalkuluan.
5. Ikastetxeko zuzendariak adierazitako faseak eta epeak betetzen direla begiratuko du. Ebaluazio faseak jarraibideei jarraikiz egiten badira, Ebaluazio Atalak aukera du horien bilakaera gainbegiratzeko eta ikastetxeetako kontsultei hobeki erantzuteko.

O. Ikaslearen eta ikastetxearen txostenak eskuratzea

1. Ekainaren 4tik aurrera ikastetxeek txostenak eskuratuko dituzte, Educa aplikazio informatikoaren bidez.
2. Ikaslearen txostena.

Ondoko informazioa du:

- * Gaitasun mailen definizio generikoa.
- * Ebaluatoriko gaitasun bakoitzean lortutako **maila**.
- * Proba bakoitzean **zuzenean lortutako puntuak**. Gaitasun mailari dagokion informazioa osatzen du, gaitasun maila bakoitzean puntuazio-tarte zabalak daudelako eta ebaketa-puntuak zein diren ezagutuz gero ikaslea mailaren zein zatitan (behekoa, erdiko, goikoa) dagoen jakiterik izanen dugulako. Tutoreak informazio honen berri eman diezaieke familiei.
- * Batez besteko 500 eta 100 desbideratze tipikoa dituen **eskalara ekarritako puntuazioa**, gaitasun bakoitzerako, eta haien irudikapen grafikoa.

Gaitasun bakoitzean puntuazio zuzenak 500eko eskalara bakarka ekartzen dira, ondoko adierazpen matematikoaren bidez:

$$y = 100 * \frac{(x - \bar{X})}{DT} + 500$$

y 500eko eskalara ekarritako puntuazioa da
 x ikasleak zuzenean lortutako puntuazioa da
 \bar{X} Nafarroako batez bestekoa da
 DT Nafarroako desbideratze tipikoa da

Puntuazioak eskala komun honetara ekartzeak aukera ematen du ikasleak proba bakoitzean zer errendimendu izan duen konparatzeko eta, orobat, konparatzeko moduko informazioa izateko, Nafarroako batez bestekoari dagokionez (batez besteko hori proba guztietan 500 da).

500eko puntuazioa ez da "gainditu" modura interpretatzen. Jakin badakigu puntuazio hori gaitasunaren 3. mailan dagoela (eskuarki, maila horren behealdean).

- * **Oharretarako gunea**, tutoreak bete dezakeena. Ebaluazio diagnostikoko txosten honen xedea da ikasle bakoitzarendako hobekuntza neurriak hartzea eta badu oharrak izeneko atala, tutoreak mezuren bat idatzi nahi badu erabil dezakeena.

Familiek seme-alaben emaitzak ezagutzeko eskubidea dute. Eskubide hori betetzeko, txosten honek ikastetxeei tresna bat eskaintzen die, tutoretza lanaren testuinguruan. Ekainerako prest egonen da, familiei emateko.

Educa aplikazio informatikoak aukera ematen du taldeko txosten guztiak artxibatze eta inprimatzeko, modu erosoan.

3. Ikastetxearen txostena (ikastetxeko ikasleen emaitza orokorrekin egindako txostena).

Ikastetxeek, Educa aplikazio informatikoaren bidez, bertako ikasleek erdietsitako emaitzen txosten orokorra eskuratuko dute, Nafarroako batez besteko emaitzekin erkatuta. Txostenak ondoko informazioa du:

- * Sarrera, haren irakurketa errazteko eta emaitzen barne azterketa egiteko.
- * Ikastetxeko ikasleen emaitzak gaitasun bakoitzaren arabera.
- * Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.
- * Maiztasun grafikoak, puntuazio bakoitzerako.
- * Erantzun zuzenen ehunekoa item bakoitzerako, grafikoarekin.
- * Batez besteko puntuazioak ikasgelaz ikasgela.
- * Emaitzak alderatzen dituzten grafikoak, gaitasunez gaitasun, baita eskala komun batera ekarritako puntuazioekin ere.
- * Gaitasun bakoitzerako Errendimendua-ISEK erregresio-zuzena duten grafikoak, ikastetxea zein tokitan dagoen adieraziz.

Irakasleen klaustroak ebaluazio diagnostikoko emaitzak aztertu eta baloratuko ditu. Datuen gaineko hausnarketa egin ondoren, hobekuntza ildoak planteatuko dira eta horren guztiaren berri emanen zaio Eskola Kontseiluari.

Ikastetxeetako zuzendariak aurrerantzeko ebaluazioen txostenak formatu elektronikoa gordeko dituzte.

4. Datuen fitxategia (CSV formatuan)

Ikaslearen eta ikastetxearen txostenez gain, Educa aplikazioak CSV formatuan dagoen fitxategi bat ere ematen du, non ikastetxeko ikaslearen erantzunak dauden, taula batean adierazita. Fitxategian ondoko informazioa dago, gaitasun bakoitzeko:

- Ikaslearen erantzunak. Galdera itxien kasuan, ikaslearen erantzuna jasotzen da (A, B, C, D) eta galdera irekien kasuan, esleitutako puntuazioa (0, 1, 2...). Informazio horri esker, modu zehatzagoan azter ditzakegu ikasleek egin dituzten akatsak eta asmatu dituzten galderak.
- Ikasleek zuriz utzi dituzten galderak. Informazio horri esker, azter dezakegu zenbateraino diren gai ikasleak ahalegin eta autonomia handiagoa eskatzen dituzten jarduerari aurre egiteko.
- Lortutako puntuazio zuzena.
- Esleitutako gaitasun maila.

Datuen fitxategiak ikastetxeari laguntzen dio azterketa osagarriak egiten eta Educa aplikazioak sortzen duen txostena osatzen. Esate baterako, CSV fitxategiaren datuekin ondokoa egin daiteke:

- Gaitasun desberdinen puntuazioen arteko korrelazioak kalkulatzeko.
- Gaitasun desberdinetako gaitasun mailen arteko korrelazioak kalkulatzeko.
- Grafikoak egitea eta ikaslearen puntuazioen banaketa mailaren arabera irudikatzea.
- Gaitasun desberdinen puntuazioen eta barneko ebaluazioetan ikasleek lortu dituzten emaitzen arteko korrelazioak kalkulatzeko.
- Ikaslearen erantzunak eta emaitzak alderatzea ikasgelaren, sexuaren eta abarren arabera.
- Eta abar.

CSV fitxategia dokumentu mota bat da, formatu irekikoa eta xumea, eta kalkulu orriak kudeatzeko erabiltzen den edozein programarekin ireki eta maneiatu daiteke.

P. Ikasleek egindako probak gordetzea

Ikaslearen koadernoak ikastetxean geldituko dira 2014ko azaroaren 30a arte, eta Hezkuntzako Ikuskarpen Zerbitzuaren esku utziko dira, zuzenketa irizpideen baliozkotasuna egiaztatzeko azterlanak egin behar badira, edo jakiteko zuzenketa irizpideak modu zuzen eta homogeneoan jarraitu ote diren.

Q. Esker ona

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak eskerrak eman nahi dizkie ebaluazio zeregin honetan arituko diren zuzendari, tutore, irakasle, orientatzaile, zerbitzuetako langile, ikasle eta gurasoei.

1. ERANSKINA

2013-2014 ikasturteko Ebaluazio diagnostiko zentsala

DBHko 2. maila

SALBUETSITAKOEN ERREGISTROA

Ikastetxea:

Salbuetsitako erregistroa		
Taldea	Izen-deiturak	Arrazoiak (A, B, C)
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		
9.		
10.		

- A. Hezkuntza sisteman sartu berriak izanik (duela ikasturte bat baino gutxiago), gaztelania (edo, kasuan kasu, euskara) ez ezagutzea.
- B. Mugitzeko edo zentzumenezko desgaitasuna, proba egitea galarazten duena.
- C. Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroan (NHBBZ) erroldaturiko desgaitasun psikiko edo intelektuala eta irakasgai gehienetan ziklo bateko edo bi kurtso baino gehiagoko curriculum desfasea, eta/edo proba egiteko autonomia gabezia.

* Erregistro hau ikastetxean gordeko da (ez da Ebaluazio Atalera bidali behar).

2. ERANSKINA

2013-2014 ikasturteko Ebaluazio diagnostiko zentsala

DBHko 2. maila

EGOKITZAPENEN ERREGISTROA

Ikastetxea:

Egokitzapenen erregistroa			
	Taldea	Izen-deiturak	Egin beharreko egokitzapena
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			
6.			
7.			
8.			
9.			
10.			

* Erregistro hau ikastetxean gordeko da (ez da Ebaluazio Atalera bidali behar).

3. ERANSKINA

Jarduketa garrantzitsuenen egutegia

Otsaila

					1	2	→ Online galdera-sorta aplikatzea (otsailaren 1etik apirilaren 16ra)
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28			

Martxoa

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Apirila

	1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13	→ Salbuetsitakoen erregistroa eta Egokitapenen erregistroa
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28	29	30					→ Ingeleseko CDa badabilela egiaztatzea (apirilaren 28tik 30era)

Maiatza

			1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11	→ Probak aplikatzea
12	13	14	15	16	17	18	→ Probak zuzentzea
19	20	21	22	23	24	25	→ Datuak Educan erregistratzea
26	27	28	29	30	31		

Ekaina

						1	
1	3	4	5	6	7	8	→ Ikaslearen eta ikastetxearen txostenetan sartzea
9	10	11	12	13	14	15	Gorde txostenak ekainaren 30a baino lehenago!
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30							